

ERANSKINA

FORU DEKRETUA

Euskara, Kultura eta Kirol Saila
Museo eta Arkeologia Zerbitzua
Esp.: 19/M3-1

Onestea Arabako Foru Aldundiaren museoetan antolatutako udalekuen prezio publikoak eta haietan izena emateko arautegia.

Arabako foru sektore publikoaren tasa eta prezio publikoen ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak (78. ALHAO, 2018ko uztailaren 6a) tasa eta prezio publikoen araubide juridikoa ezartzen du eta 25.1. artikuluan xedatzen du Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu bidez ezarriko direla prezio publikoak eta aldatuko direla zenbatekoak.

9/2018 Foru Arauko 24. artikulua xedatzen du arrazoi sozialak, ongintzakoak edo interes publikokoak daudenean, aurreko atalean ezarritako parametroak baino prezio publiko txikiagoak ezarri ahalko direla (gutxienez kostuak ordaintzeko modukoak), aurrez aurrekontu aurreikuspenak eginda, diruz lagundutako prezioaren zatia ordaindu ahal izateko. Aldundiaren museoetan antolatutako udalekuen interes publikoa agerikoa da; izan ere, xede pedagogiko, hezitzaile eta ludikoa izatez gain, eskola umeen hezkuntzaren osagarri izatea ere dute helburu. Horretarako, arteari, historiari eta arkeologiari buruzko alderdi kulturalak eta jolasa eta alderdi ludikoa ere jorratuko dira.

Hezkuntza helburuaz gainera, udalekuen betekizuna da, baita ere, familiei baliabideak eskaintzea beren lanbide ardurak eta ardura pertsonalak bateratzeko, eskolako oporraldietan adingabeak zaintzea erraztuz. Eginbehar hori jasota dago 3/2007 Lege Organikoan (Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eraginkorrerako Legea, 14. artikulua) eta Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legean (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea, 47. artikulua). Bi lege horietan, arautzen da administrazio publikoek neurriak ezarri behar dituztela emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala eta familia bizitza lanarekin bateratzea segurtatzeko, baita etxeo lanetan eta familiarenganako arretan ardurak partekatzearen sustapena ere segurtatzeko

Horregatik, 23., 24., 25. eta 26. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Arabako Arte Ederren Museoan, Bibat Museoan, Natura Zientzien Museoan eta Arma Museoan antolatutako udalekuetan izena emateko prezio publikoa onestea proposatzen da.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Onestea Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Arabako Arte Ederren Museoan, Bibat Museoan, Natura Zientzien Museoan eta Arma Museoan antolatutako udalekuetan izena emateko kuotaren prezio publikoaren araudia.

1. artikulua.- Zerga gaia

Zerga gaia da Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Arabako Arte Ederren Museoan, Bibat Museoan, Natura Zientzien Museoan eta Arma Museoan antolatutako udalekuetan izena ematea.

Udalekuak astebeteko moduluetan antolatuko dira, “Ezagutu zure museoak...” lemapean, 2019ko uztailaren 2tik 19ra bitartean, bi egun horiek barne.

2. artikulua.- Ordaintzera behartuak.

Ordaintzera behartuta daude Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Arabako Arte Ederren Museoan, Bibat Museoan, Natura Zientzien Museoan eta Arma Museoan antolatutako udalekuetan izena eman duten pertsona fisikoak edo haien guraso, tutore edo ordezkariak.

3. artikulua.- Izena emateko kuotak

Izena emateko kuota 37,00 euro izango da udalekuko (astebeteko modulua).

Bi anai-arrebak edo gehiagok izena ematen badute, kuota hau ordainduko dute:

- 1. anai-arrebak, kuotaren % 100, hau da, 37,00 euro.
- 2. anai-arrebak, kuotaren % 48,65, hau da, 18,00 euro.
- 3. anai-arrebak eta hurrengoek, kuotaren % 24,32, hau da, 9,00 euro.

4. artikulua.- Sortzapena

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Arabako Arte Ederren Museoan, Bibat museoan, Natura Zientzien Museoan eta Arma Museoan antolatutako udalekuetan izena ematen den unean sortuko da prezioa ordaintzeko betebeharra.

5. artikulua.- Ordaintzeko era

Izen ematea baieztatutakoan eta ordain gutuna egindakoan ordainduko da, bai dirubilketan laguntzen duten erakundeetan, bai Euskal Administrazioaren Ordainketa Pasabidean (www.euskadi.net/mipago).

6. artikulua.- Kudeaketa eta administrazioa

Prezio publiko hauen kudeaketa eta administrazioa Arabako Foru Aldundiari dagokio, eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren bitartez egingo du.

Azken xedapena. Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.